



# Herri bazkariak luzatuko du aurtengo alardearen jaia

Andia kultur elkarteak Antxon Bandres omenduko du, ekainaren 3ko Tolosako II. alarde napoleonikoan

## Itzea Urkizu

Aurten bigarren ospatuko duten Tolosako alarde napoleonikoaren jaia, Zerkausian antolatuta duten herri bazkari batek luzatuko du. Era berean, duela hilabete batzuk zendu zen Antxon Bandres gogora ekarriko dute.

Andia kultur elkarteak iaz antolatu zuen, lehenengoz, 1813ko Tolosako gudua antzezteko alardea. Urte hartako ekainaren 25ean izan zen gertakaria, eta 24 ordu iraun zuen gudu hartan, soldadu gipuzkoarrez gain, frantsesak, ingelesak, espainiarrak, portugaldarrak, italiarrak nahiz alemaniarrek izan ziren, Tolosan.

Hau guztia gogora ekartzeko, Andia kultur elkarteak alardea antolatuko du bigarren, Tolosako Udalaren laguntzaz. 150 parte hartzaile elkartzeara espero dute antolatzaileek, izan ere, Tolosako Musika Banda eta Donostiako Urgull, Gastronomía eta Kañoietan elkarteetako kideek ere parte hartuko dute ospakizunean.

## Bazkaria ere napoleonikoa

Bigarren alarde napoleonikora, Andia kultur elkarteak hainbat jardueren bitartez berrikuntzak txertatu dituzte ekainaren 3ko egitarauan.

Alde batetik, garaiko anbulantzia bat izango da alardean, garai-jantziekin. Horrez gain, ordea, herri bazkaria antolatu dute, Zerkausian. Alardeko parte hartzaileez gain, bisitari eta ikusleek ere bazkaria joan ahal izango dute.

Izan ere, turismoari begira jarri da aurtengo alardea: Tolosaldea Tour-ekin eta Zumalakarregi museoarekin elkarlanean, alardearen azalpen historikoa, hamaiketako, bazkaria eta Alde Zaharreko bisita gidatua eskainiko dituzte ekainaren 3rako, 35 euroren truke.

Aipatzekoa da, bazkariko menu berezia izango dela, eta musika zuzenean izango dela otordu osoan zehar, Andia kultur elkarteak kideek eskainiko dituzten parodia napoleonikoekin batera.

## Ospakizunetik afiziora

Iazko alardea egin eta gero, guduak antzezteko talde bat sortu zuten Andia elkarteak hainbat kidek. «Taldea hauetan parte hartzeak arrazoiak hainbat dira; ba-

## Herri bazkaria eta Alde Zaharreko bisita gidatua izango dira berrikuntza nagusiak

tzuei mozarrotzea gustatzen zaie, besteei guduak gustatzen zaizkie, eta beste batzuek historiarekiko interesagatik egiten dute», azaldu zuen Andia kide batek.

Talde honekin, Espainiako biguduren antzezpenean parte hartu dute jada: Astorgan izan ziren (Leon, Espainia), eta maiatzaren 2ko Madrilgo gudua antzeztean ere izan ziren batzuk, Lerma (Burgos, Espainia) talde batekin batera.

Honen harira, Andia kideek Europar zehar guduen antzezpenean duten garrantzia eta interes turistikoa nabarmendu nahi izan zuten. Waterloo-ko gudua errepresentazioak ia 3.000 lagun biltzen ditu parte hartzaileen artean, eta 2015ean bertan izan nahi dute Tolosako taldekoek.



Euskal Herria plazan eta Trianguloan egingo dituzte tiroketak, ekainaren 3ko alardean. I. URKIZU

## ↓ Tolosako II. Alarde Napoleonikoa

### EKAINAK 3, IGANDEA

- **10:45.** Parte hartzaileak Nafarroako zubiko bisitaldi gidatua egiteko elkartuko dira. Ramon Labaienek eta Jose Antonio Recondon Tolosako gudua azalpena eskainiko dute, eta ondoren hamaiketako egingo dute Zerkausian.
- **12:00.** Ikuskizuna hasiko da.

Musika eskola parean armak ikuskatuko dituzte, eta desfilea abiatuko da. Euskal Herria plazan nahiz Trianguloan tiroketak egingo dituzte.

■ **13:00.** Beethoven-en *Batalla de Vitoria* obra eskainiko du Tolosako Musika Bandak, eta Nafarroako zubian Tolosako gudua antzerkia egingo dute parte hartzaileek.

■ **14:00.** Tropek azken desfilea egingo dute.

■ **14:30.** Herri bazkaria izango da Zerkausian. Menu berezia, musika eta hainbat parodia izango dira.

■ **17:00.** Alde Zaharreko kaleetan barrena bisitaldi gidatua eskainiko dute. Arreta berezia jarriko diete, inbasioan garrantzia berezia izan zuten eraikinei.

## 'Burnia' ikuskizunak labe garaietako giroa ekarriko du oholtzara

Aukeran dantza konpainiak bere azken lana eskainiko du gaur, 20:30ean, Tolosako Leidor aretoan

### I. Urkizu

Aukeran dantza konpainiak Burnia ikuskizuna eskainiko du gaur, 20:30ean, Tolosako Leidor aretoan.

XIX. mendean burdinoletatik labe garaietaraino emandako jautziak gain, Edu Muruamendiaraz buru duen konpainiak garai hartako gerrateak ere gogora ekarriko ditu, euskal dantzako pausoak dantza garaikidearekin uztartzen dituen taldeak, Euskal Herriko historiaren zati bat irudikatu nahirik.

20:30ean hasiko den ikuskizunerako sarrerak [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean nahiz Leidorreko leihtilan eskura daitezke.

## Alurrek 'Izanak dirau, 1512' lana aurkeztuko du, bihar, Zizurkilan

Duela 500 urteko Nafarroako konkista gogora ekarri nahi izan du tale ibartarrak ikuskizun berrian

### I. Terradillos Zizurkil

Ibarrako Alurr dantza taldeak *Izanak dirau, 1512* lana aurkeztuko du bihar Zizurkilan. Hain zuzen ere, Zizurkil Goiko pilotalekuan izango da emanaldia, 22:00etan hasita.

Pasa den apirilaren 14an estreinatuta ibartarrek lan berria Lasarten, eta hurrengo egunean Baigorri (Nafarroa Beherea) eskaini zuten. Eskualdeko hurrengo saioa Tolosan eskainiko dute, hilaren 26an, Nafar Estatua Goan egitarauaren barruan, eta ikuskizunerako sarrerak dagoneko eskuragarri daude [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean.

o [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)

## Banakako txapelketako final-zortzirenak jokatu dituzte asteburuan

### I. Terradillos

Banakako Pilota Txapelketako final zortzirenak jokatu dituzte lehen mailako pilotariak asteburuan. Gaur, Leitzan bizi den Olaiola I.ak Aritz Lasaren aurkako partida izango du, Santo Domingo de La Calzadan, 20:30ean hasiko den jaialdiaren barruan.

Bihar, berriz, Barriola leitzarria eta Martinez de Irujo ariko dira nor baino nor, Eibarren. 17:30ean hasiko den jaialdiko bigarren partida izango da. Astelehenean, berriz, Olaetxea lizartzararen txanda izango da. Tolosako Beoti-barren jokatu du Retegi Biren aurka, 16:30etik aurrera.

Bestalde, bigarren mailako txapelketari dagokionez, Jaunarena leitzarria da lehiatzen dabilen eskualdeko pilotari bakarra. Bihar jokatu du Bilbon, final-laurdeneko partida Ibai Zabalauren aurka, 17:15ean.

o [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Arzallus, Soto, Colina, Lujanbio, Zubeldia, Egaña eta Sarriegi ariko dira Leidor aretoko bertso saioan. HITZA

## Etiopiako nekazariengana iritsiko dira Leidor aretoko bertso doinuak

Etiopia Utopia elkarteak antolatu du bihar Tolosako Leidor aretoan izango den bertso jaialdia

### Itzea Urkizu

Wukro-ko (Etiopia) herritarrenzat kanaberak erosteko finantziario lortzeko helburuz, bertso jaialdia izango da bihar, Leidor aretoan, 22:00etan.

Etiopia Utopia fundazioak, Euskadi Irratiaren eta Tolosako Udalaren laguntzaz antolatu du egitasmoa, eta fundazioak Tolosaldean burutuko duen lehen jardueraz izango da biharkoa.

Oholtza gainean, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Julio Soto, Sustrai Colina,

Iker Zubeldia eta Aitor Sarriegi bertsolariak ariko dira, eta Unai Elizasuren gaien arabera moldatuko beharko dute bat-batean. Saiora bertaratu nahi dutenek, 10 euroren truke sarrera eskuratu ahal izango dute; Tolosan, Raku, Orbela, Kantabriko eta Denak tabernetan izango dira salgai, eta baita Leidor aretoko leihatilan ere. Villabonan, berriaz, sarrerak Amasa kafetegian erosteko aukeraz izango da.

**Giza sarea, elkartasunerantz** Irabazi asmorik gabeko erakundea da Etiopia Utopia fundazioa. Etiopiako Tigray eskualdera, eta bereziki Wukro-ra begirako egitasmoak antolatzen dituzte, bertako garapenerako laguntza emanez. Fundazioak gizartearen sare moduko bat sortu nahi izan du

hasiera-hasieratik, xede horietara iristeko; herritarrek, horrela, norbanako moduan nahiz erakunde publiko eta pribatuaren bidez parte har dezakete elkartasun jardueran hauek.

Kanaberak Etiopiarra proiektuak, hiru jomuga nagusi ditu: ura alferrik ez galtzea, higaduraren eraginez ibaiak ez agortzea eta Wukro-ko herritarrek baratzte

### Tigray eskualdeko nekazal komunitateei laguntzeko bide izango da bertso saioa

oparok izateko behar dituzten kanaberak lortzea.

Etiopia Utopia elkarteak azaldu duenez, Tigray eskualdeko txirrotasuna hertsiki loturik dago,

bertako ingurumenaren egoera txarrarekin. Izan ere, eurite handiek eta landaredia eskasak, higadura larriak sor ditzake, eta honi aurre egiteko baliagarria litzateke, lurra eta ura kontserbatzeko tratua bereziak erabiltzea.

Horrela beraz, Etiopiako biodibertsitatea nahiz nekazarien bizi baldintzak hobetzeko, hainbat jardueraz zehatza zehatza ditu Etiopia Utopia fundazioak proiektu honetan: posible den lekuetan ibai ertzaren forma aldatzea; zuhaitz, zuhaixka eta landareak era naturalean birsortzeko lan egitea; eskualde horretarako baliagarriak izan daitezkeen landare eta zuhaitzak landatzea; azkenik, bertako biztanleak kontzientziatu nahi dituzte, 200 nekazal etxeri formakuntza eskainiz.

● [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

### Angel Olaran misiolariak hasitako bidezidorretik

➔ Hermaniko Angel Olaran misiolaria, Tanzania 20 urte igaro ostean, Etiopian bizi da 1992. urteaz geroztik.

Bere ekarpenik nabarmenetakoa Saint Mary ikastetxea sortzea izan zen; 400 ikasleri nekazaritza, merkataritza, elektrizitatea, soldatze nahiz mekanika orokorreko formakuntza eskaintzen diete bertan.

Baliabiderik gabeko pertsonen laguntza hasi zen Olaran Wukro bezalako herrietan, norbanako moduan.

Pixkana, ordea, eremu zabalgogotara iritsi izan diren elkartasun jarduerak antolatu izan ditu.

Etiopia Utopia fundazioaren arabera, Angel Olaran zor zaio Wukro-ko komunitateak gaur egunera arte izan duen garapena, eta hobetu egin nahi dute.

## «Fundazioan sartzeko gogoia nuen aspalditik»

### I. Urkizu

Aiala Nuñezek (Tolosa, 1988) hila bete batzuk daramatza Etiopia Utopia fundazioko komunikazio saillean. Elkartearen jardunak erakarri izan du beti, eta ikasketak medio hasi da bertan.

**Bihar bertso saioa izango da Tolosan, Kanaberak etiopiarra egitasmoaren alde. Nolatan sortu zen ideia?**

Etiopia Utopia fundazioak hainbat jardueraz eta egitasmo antolatzen ditu, finantziatzeko. Ekimen hauek guztiak publikoari irekiak izaten dira, herriak parte hartzeko helburuz. Fundazioak jardueraz hauek Donostian eta inguruan antolatu izan ditu orain arte, bulegoak han baitaude. Honen aurrean, egitasmoak zertxobait zabaltzea erabaki zu-

ten. Neroni duela gutxi sartu naiz Etiopia Utopia fundazioan, eta lehendik ere beste tolosar bat bazenez, Kanaberak Etiopiarra egitasmoa Tolosan antolatzea erabaki zuten, eskualde honetan ere beren berri izan zezaten. Fundazio-ko zuzendariak Lanku enpresari proposatu zion bertso saioaren ideia, eta horrela hasi zen guztia. **Denbora gutxi daramazu fundazioan, beraz.**

Duela urte batzuk, lagun bat Etiopia izan zen fundazioarekin lanean, eta esperientzia izugarri gustatu zitzaionez fundazioan sartu zen. Handik itzuli zenean, Etiopia Utopiarekin antolatzen zituzten jarduerak eta ekimenak kontatzen zizkidan, eta oso interresgarriak iruditzen zitzaizkidan. Halako fundazio mota batean sar-



HITZA

tzeko gogoia nuen, beraz, aspalditanik.

**Eta nolatan suertatu zaizu kide izateko aukera?**

Kontua da, duela hilabete batzuk,

ekitaldien antolakuntzaren inguruko masterra ikasten hasi nintzela; proiektu bat egin behar du mastererako. Horrela beraz, eta beti fundazioarekin gora eta behe-

ra nabilenez, proiektua egitea fundaziara joatea bururatu zitzaidan. Proposamena aurkeztu nien, eta baiezkoa eman zidaten; bide batez, fundazioko kide izateko gonbidapena ere egin zidaten. Eta horrelaxe hasi nintzen.

**Eta zein da zure ekarpena Etiopia Utopian?**

Fundazioak pertsona espezializatuak hartzen ditu, hau da, fundazioan ariko diren jardun horretarako prestakuntza jaso dutenak. Nire kasuan, esaterako, Publizitatea eta Harreman Publikoen ikasketan egin nituen, fundazioko komunikazio saillean hasi nintzen. Hamasei bat lagun aritzen gara sail horretan, eta fundazioak martxan jarriko duen proiektua behin betiko erabakitzen duenean, gutako bakoitzak betebeharrak izaten du. Bertso saioaren kasuan, adibidez, sarrerak banatzen, kartelak jartzen nahiz prentsa oharrak itzultzen aritu naiz.



Herri sarrerako autobus geltokian hasitako txangoa leku berean amaituko dugu, 2,8 kilometroko ibilbidea egin ondoren.

# Elduain herria zeharkatuz

## Asier Imaz

Ibarratik Berastegira doan errepidea jarraitzen baldin badugu, bidearen erdian Elduainekin egiten dugu topo. Herri sarreran, autobus geltoki bat dago, eta bertatik hasiko dugu txangoa. Ibilaldia kasu honetan itzulita denez, irteera eta amaiera puntua herri sarreran kokatuko ditugu.

Herri gunetik Sales baserrira joan-etorria laburra eta erraza da: bizikletan 10 minutu, korrika 15 eta oinez ordu erdi. Gauzak lasai hartzea, beraz, gozamenarentzat aberasgarria izango da.

Autobus geltokian burua alde batera eta bestera mugitzen baldin badugu, ezkerrean Leitzarango autobia ikusiko dugu, aurrealdean eliza eta udaletxea, eta eskuinaldean gure ibilbidea.

Beharantz abiatuko gara, Corenso Tolosana enpresarantz. XIX. mendean Elduaingo jarduera ekonomiko nagusia burdinolek osatzen zuten: Ollokiegi, Inturia eta Berinez-ek. Harrez gero, jarduera nagusiak baso ustiapena, abeltzaintza, nekazaritza eta paper eta kimika industria bilakatu ziren. Azken honen adierazle nagusia da Corenso Tolosana. Bertara doan errepidean, bi etxebizitzako txaletak eta baserri batzuk ikusiko ditugu. Elduainean

FATXI JAGOBA AZPIROTZ MANTEROLA



## DATUAK

- **Luzera.** 2.800 metro.
- **Ezaugarriak.** Joan-etorria eta biratxo bat.
- **Hurbilketa.** Aldiriko Renfe trenean Tolosara eta gero autobusean Elduaineraino.
- **Hasiera-bukaera.** Elduain sarreran dagoen autobus geltokian.
- **Zailtasun maila.** Herri guneko malda; bat piko xamarra.
- **Azalpenak.** Elduain azpialdean ibilalditxo.
- **Interesguneak.** Elizako erretoa, Sorregieta baserria eta oro har, naturgunea.

227 biztanle bizi dira, azken errodaren arabera; 25,2 kilometroko zabalera dauka, eta itsasoaren maila kontuan hartuta, 260 metroko altueran dago. Herriguneko enpresa handia igaro ondoren, eskuinera hartuko dugu. Bidegurutzen artean galtzea ez da zaila, baina nora goazen ikustea erraza denez, erreferentzia bezala errekararen beste aldean dagoen behi haztegia hartuko dugu. Bertara iristeko, beheko erreka zeharkatu behar da. Horretarako zubia dago, eta pasabidea hasten den lekuan errepedeko galipota amaitzen da. Pista ez da oso luzea, hain

## Sales baserrirako joan-etorria laburra eta erraza da; maldak herrigunearan daude

## Elizaren ondoren futbol udaletxea, taberna, futbol zelaia eta pilotalekua daude

justu, behi haztegiaren amaitzen baita.

Galipotarekin topo egiten dugunean, zalantza piztuko zaigu, agian. Eskuinera edo ezkerredera egingo dugu orain? Aurrean dugun bailarako azken baserria aurkitu behar dugunez, eskuinera egingo dugu. Haztegiaren ondortik pasatzean, bigarren bidegurutzearekin egingo dugu topo, den-




Herri gunetik behera begiratzen badugu, Sales baserrira doan bidea ikusiko dugu. A. IMAZ

bora gutxian. Kasu honetan, ezkerreko bide laua hartuko dugu. Hainbat baserri eder ikusiko ditugu aurrean, zelai berde ederrez inguratutik. Erreka txiki baten laguntza ere izango dugu, Sales baserrirako bidean.

Sales baserria auzo txiki honetako azken baserria da, eta errepidea eta pista uzartzaren diren lekuan aurkitzen da. Paisaia zoragarria dauka aurrealdean: basoz jantzitako orma ikusgarria. Pistan aurrera eginez gero, Larte mendira iristen da mendizalea, hori bai, malda benetan gogorrik igotzen.

Kasu honetan, joan-etorri laburra eta lasaia egiteko asmoa dugunez, Sales baserrira iristean buelta hartuko dugu. Errekatxo oraingoan eskuin aldean geldituko da, eta ezkerrean... garai batean arropak garbitzeko erabiliako zuten aska topatuko dugu; atsedean hartzeko benetan leku egokia.

Ibilbidearen erdia egitean, etorritako bidetik joango gara. Enpresa ondora iristean, ezkerredera egin beharrean aurrera jarraituko dugu maldan gora. Bide honetatik elizara iritsiko gara. Esku-



Joan-etorriaren planoak. A. IMAZ

nean futbol zelaia eta pilotalekua daude. Eskaileretan gora egiten baldin badugu, errepidera irteerako gara. Ezkerretan, udaletxea eta Kontzeju Taberna daude: freskagarri edo garagardo fresko bat hartzeko garaia da, beraz.

Errepidean behera egiten baldin badugu, berriro ere herri sa-

rrerako autobus geltokira iritsiko gara, hau da, ibilbidearen amaiera puntura. Autobusaren ordutegia begiratu, eta zerbitzu publikoaren zain geldituko gara bertan. Autostop egin nahi duenak ere, erraz aurkituko du Tolosara eramango duen autoa, teoriarik behintzat.



Ibilbidean aska eder honekin egingo dugu topo. Aurrera jarraitzen baldin badugu, sales baserrira iritsiko gara. A. IMAZ





# Euskal Herria-Palestina Elkartasun Eguna Alegian ospatuko dute, bihar

Egun osoko festa antolatu dute, eta 11:00etan hasiko da; Tolosan, hilaren 19an ospatuko dute

## Eneritz Maiz

Larunbatean Alegian izango den Euskal Herria-Palestina Elkartasun Eguna, eta hilaren 19an Tolosan izango diren ekitaldiak aurkeztu zituzten, atzo, Tolosako udaletxean.

Euskal Herritik Palestinari elkartasuna adierazi nahi zaio. Alegiako Udalak, Tolosaldeko gainerako udalen babesarekin eta Euskal Herria Palestina sarearekin elkarlanean antolatu du eguna, eta bertara joateko gonbita luzatu zuen Unai Iraola alkateak.

«2010eko irailean, Alegiako Udalak eta Al Ain errefuxiatu guzuek senidetze hitzarmena sinatu zuten. Zestoa, Igorre eta Arbizuk, Marda, Bir Zeit eta Ni'lin palestinarrak herriekin egin moduan. Honela, bi herrien arteko zubi lanak eraikitze bidean, mugarri izan nahi luke larunbateko egunak», gaineratu du Iraolak. «Aldarrikapen eta festa giroan ospatuz, Palestinarekiko elkartasuna sendotu eta saretzea du helburu ekimenak», azaldu zuen.

Unai Iraolarekin batera, Ibai Iriarte Tolosako alkatea, Jesus Artetxe Biladi elkarteak kidea eta Julen Zulaika EH-Palestina Sareako kidea izan ziren.

Mendebaldeko Sahararekin gertatzen den moduan, Euskal Herriak Palestinarekin ere harreman berezia duela argitu zuten. Nabaren inguruan antolatu dituzte ekitaldiak. «Maiatzaren 15ean ospatzen dute Nakba egu-



Julen Zulaika, Unai Iraola, Ibai Iriarte eta Jexux Artetxe aurkeztu zituzten ekitaldiak, atzo. E. MAIZ

na eta egun iluna da. Palestinar herriaren exodoa da, eta hau, 1946 eta 1948 urteen artean eman zen. II. Mundu gerraren ostean, Israelgo estatua sortzean eman zen palestinarrak desplazamendua. Beraien lurretatik bota zituzten,

nabarmendu zuen Ibai Iriarte Tolosako alkateak.

«Badakigu une gogorrek direla palestinarrak hauek. Gose greban euren eskubideen aldeko borrokan diraute bi milatetik gora preso politiko palestinarrak;

kaleetan, berriz, protesta eta elkartasun keinuak indartzen ari diren heinean, euren aurkako errepresioak ere gora egin du», nabarmendu dute. «Bitartean palestinarrak aurkako zapalkuntzak etenik gabe jarraitzen du: Gazako blokeoa, Zisjordaniako apartheid harreria, milioika errefuxiatuaren eskubiderik eza...».

## 64 urte betetzear

Palestinarrak hondamendia hasi zela 64 urte beteko diren Nakba egunaren ateetan, «Palestina EH Sarearen oinarritzko aldarriak berebiziko garrantzia du», adierazi zuten.

Izan ere, «Palestinarekin elkarlana eta elkartasuna bultzatu behar dira apartheid politikari bizkar emanez. Modu berean, Israelgo estatu sionistarekin harremanak eteteko konpromisoa berretsi nahi genuke, Boikot Desinbertsio Zigor nazioarteko kanpainari jarraipena emanez. Eta bide batez, gainerako elkarte, eragile, udalerri eta norbanakoek ere, bide honetan pauso irmoak

## Irudia Tolosa



## PALESTINA GERTUAGO

Atzotik ikusgai daude Tolosako kultur etxean palestinarrak lotutako argazkiak eta informazioa. Egoeraren berri emateko bideoak ikusteko aukera ere eskainiko du Bidali elkarteak. 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik. E. MAIZ

## ↓ Egitaraua

### MAIATZAK 12, LARUNBATA

#### ALEGIA

- 11:00. Olibondoen landaketa egingo dute.
- 12:00. Harrera ekitaldia izango da, udaletxe plazan.
- Ondoren. Hainbat txoko eta postu izango dira: haurren txokoa, kometa tailerra, material postua, Uhintafada irratsaioa zuzenean, falafel dastaketa postua...
- 14:30. Herri bazkaria.
- 18:00. Euskal eta palestinarrak dantzak ikusteko aukera izango da.
- 21:00. Zahagi ardoa.
- 23:00. Manillares Iturriagaren konzertua gaztetxean, eta ondoren, Djak izango dira.

### MAIATZAK 19, LARUNBATA

#### TOLOSA

- 12:30. Nabaren oroimenezko oroiragria inauguratuko dute Emeterio Arrese plazan. Txistulariak, dantzariak eta bertsolariak izango dira ekitaldian. Palestinar bertsokak arabieraz, euskaraz eta gazteleraz errezitatuko dituzte.
- Ondoren. Bazkari arabiarra egingo dute.

#### ERAKUSKETA

#### TOLOSA

- Hilaren 20a arte. Kultur etxean egongo da Palestinari lotutako argazki erakusketa hilaren 20a, igandea, bitarte.

eman, eta BDZ deialdiarekin konpromisoa har dezazuen» eskatu zuten.

Jesus Artetxek Bidali elkartearen izenean alderdi politiko guztiei eskatu zien gertaera tragiko honen amaiera eskatzea. «Ez da normala, torturatzen, desjabetzen eta beraien etxeetatik botatzeko jarraitzea», esan zuen.

**MARIEN ZUHAIZTIA**

3 ZIRKUITU  
32 JOKO  
10 TIROLINA

TXINDOKIKO ITZALA

**VILABONAKO 6. MARTXA ZIKLOTURISTA**  
Maiatzak 13 (igandea)

Irteerako ordua: **Goleko Jak**  
Itzura ordua: **Goleko Jak**  
Lekua: **Malkar plaza (Vilabona)**

IRTEERAKO ORDUAK

Ordua	Ordua	Ordua
08:00	08:15	08:30
08:45	09:00	09:15
09:30	09:45	10:00
10:15	10:30	10:45
11:00	11:15	11:30
11:45	12:00	12:15
12:30	12:45	13:00
13:15	13:30	13:45
14:00	14:15	14:30
14:45	15:00	15:15
15:30	15:45	16:00
16:15	16:30	16:45
17:00	17:15	17:30
17:45	18:00	18:15
18:30	18:45	19:00
19:15	19:30	19:45
20:00	20:15	20:30
20:45	21:00	21:15
21:30	21:45	22:00
22:15	22:30	22:45
23:00	23:15	23:30
23:45	24:00	24:15

IRTEERAKO ORDUAK

IRTEERAKO ORDUAK

# Herrialdeko txapelketetan murgilduko dira Alegia, Amezketeta, Leitza eta Tolosa

Alegiako, Amezketako eta Leitzako pilotariak eskuz ariko dira, eta Tolosakoak zesta puntan lehiatuko dira

**Imanol Garcia Landa**

Asteburu honetan hasiko dira Herriartekeko Pilota Txapelketak, eta bi eskualdeetako lau herri sartuko dira lehiara: Alegia, Amezketeta eta Leitza, eskuz, eta Tolosa, zesta puntan.

Alegiak Urnietaren aurka jokatuko du, bihar, 19:00etan, arerioaren frontoian. Kadete mailan oraindik ez dute zehaztuta zeinek jokatuko duten; Haritz Zabala, Alex Goikoetxea eta Ander Garinen artean aterako da bikotea. Jubeniletan Iñaki Artola eta Adur Murua ariko dira eta nagusietan Mikel Artola eta Beñat Zabala. Jubeniletan dute irabazteko aukera garbia, Jose Luis Zabala taldeko arduradunak azaldu duenez, Iñaki Artola baitute, egun maila horretan dagoen jokalaririk onenetakoa. «Beste bi mailatan ikusi beharko dugu zer gertatzen den. Beraiek nagusietan jokalaririk on bat badute, Erostarbe», zehaztu du Zabala. Itzulerako partida hurrengo asteburuan jokatuko dute, Alegian.

Amezketak gaur du joaneko neurketa, etxean, 20:00etan, Arrasateren aurka. Kadete mailan Ju-

len Zubeldia eta Ander Zabala ariko dira, jubeniletan Jokin Altuna eta Julen Otamendi, eta nagusietan Joseba Gallurralde eta Ibai Beloki. Xalton Zabala taldeko arduradunak esan duenez, «zaila da aurrera egitea. Taldea osatzea ez da erraza eta gure taldean ondoen dabilen pilotaria, Gallurralde, jubeniletatik nagusietara pasatu behar izan dugu». Altuna ere ondo aritzen den pilotaria da eta kadete mailakoa izan arren, jubeniletan jokatuko duela nabarmendu du Zabala.

Etxean jokatzen dutenez, herrikoen babesa eskatu du amezketarren arduradunak. «Ea gure frontoian jokatzeak laguntzen digun neurketari hasiera ona ematen», azaldu du Zabala.

Leitzarrek, noski, Nafarroako Herriartekeko Txapelketan parte hartuko dute, lehen mailan. Iruñean aurka jokatuko du Leitzak neurketa eta gaur izango dira partidak, Iruñeko Oberena frontoian, 18:30ean.

Lau mailatan lehiatuko dira. Leitzaren aldetik, alebinetan He-goi Txoperena eta Oier Goikoeetxea ariko dira; infantiletan, Mikel Eraso eta Ander Eskudero; gazteetan Anartz Olano eta Xabi Jaunarena; eta nagusietan, Ibai Bengoetxea eta Axier Gartzia.

Leitzako taldearen arduradunek azaldu dutenez, «herriaren izenean doazenez, pilotariak ilusio handiarekin doaz, eta ea herrikideak animatzen diren Iruñera

joatera gure pilotariei bultzatzen dira».

Zesta puntako txapelketa ez da kanporaketa bidez izaten, ligaxka bat jokatuz baizik. Tolosaz gain, Mutrikuk, Zumaiak eta Donostiak hartzen dute parte lehiaketan. Tolosak lehenengo neurketa Mutrikuren aurka jokatuko du, igandean, etxetik kanpo, 11:00etan. Jubenil mailako pilotariak ez dute Tolosakoek, eta, beraz, kadeteak ariko dira maila horretan lehiatzen.

Andoni Lertxundi taldeko arduradunak azaldu duenez, hamabi kadete eta hamabi nagusi dauzede izena emanda txapelketarako. Asteburu honetan, kadeteetan Eneko Legarra eta Alex Ibañez ariko dira, jubeniletan Jon Lekuona eta Ibon Iparragirre, eta nagusietan Beñat Lopez eta Julen Telleria. Lertxundik esan duenez, «jubenilen hutsunea izanik, zaila izango da finalera iristea».

## GRAVN txapelketa

Herrialdeetako selekzioek parte hartzen duten pilota txapelketan, jubeniletan, binaka, Zazpi Iturriko Iker Irribarria aramarra eta Xabi Tolosa anoetarra izan ziren txapelidun. Maila berean, banaka, Intxurreko Iñaki Artola alegiarra izan zen txapeliduna.

Bestalde, Lazkaoko festetan Joseba Gallurralde amezketarrak txapela jantzi zuen Azpeitiko Aizpururen laguntzarekin.

## Irudia • Aiztondo



## «ZELARAINEK ASKE BEHAR DU»

Etixerat elkarteak salatu duenez, Peio Zelarain euskal preso billabonatarak kalean behar zuen. 1973ko kode penalarekin epaitua izatean, bertako zigor murrizketa ezarri behar zitzaiola dio. Zelarainen koadro batekin errifa egin zuten Herrira Egunean, eta Lurdes Azurmendik jaso du saria (argazkian, eskuinean). Bestalde, Ander Gerresta zizurkildarrak gaur, Frantzia kondena betetzen duela-eta, elkarretaratzea egingo dute, 20:00etan, Zizurkil Goian. HITZA

## ↓ Kirola Tolosan

### OSTIRALA

#### ARETOFUTBOLA

**20:45.** Uzturpen, senior maila emakumeak, Orixe-Berastegi.

### LARUNBATA

#### SASKIBALOA

**09:00.** Usabalen, T. Montesku-Goierri; T. Izaskun-Larramendi; T. Bedaio-Oiarso.  
**10:30.** Usabal: Triki Take-Easo; T. Oria-Zast, T. Urkizu-Eskoriatza.  
**12:00.** Usabalen, junior mailan, Take-Irun; T. Tovar-Oiarso.

#### ARETOFUTBOLA

**09:30.** Usabalen, infantil mailan, Laskorain-Zarautz.  
**10:30.** Usabalen, kadete mailan, Laskorain-Eskoriatza.  
**15:45.** Eskolapioetan, Eskolapioak-EHU Araba.  
**18:00.** Eskolapioetan, Hirukide Plomix-Aretxabaleta.  
**18:00.** Usabalen, 3. Laskorain-Umore Ona.

#### ESKUBALOA

**12:00.** Usabalen, inf. mailan, Tolosa-Ama Guadalupe.

### FUTBOLA

**09:30.** Usabalen, kad. oho., Tolosa CF-Amaikabat.  
**15:30.** Usabalen, senior emak., Tolosa CF-Hernani.

### IGANDEA

#### SASKIBALOA

**12:00.** Usabalen, Junior mutilak, Take-BKL.

#### FUTBOLA

**10:00.** Usabal: alebin, Tolosa-Kostkas eta Tolosa-Urola.  
**10:30.** Berazubín, infantilak, Tolosa C.F.-Sporting Herrera.  
**12:00.** Berazubín, kadete neskek, Tolosa C.F.-Urnieta.

# Bateragune auziaren epaiari eskualde mailako salaketa, gaur

Gernikako Akordioaren sinatzaileek deitu dute elkarretaratzea; Anoetan eta Ibarran herenegun salatu zuten

**I. Garcia Landa**

Gernikako Akordioa sinatzen duten eragileek mobilizaziora deitu dute, gaur, 19:00etan, Tolosako Trianguloa plazan, Bateragune auzian emandako epaiaren ondorioz beraien desadostasuna adierazteko. Eskualde mailako elkarretaratzea izango da, *Preso dituzuen politikoa askatu!* lelopean.

Aurretik zenbait herritan epaiaren aurkako elkarretaratze-



Anoetan herenegun arratsaldean egin zuten elkarretaratzea. HITZA

ak egin zituzten, herenegun arratsaldean, ezker abertzaleak deituta. Anoetan 23 pertsona elkartu ziren Bateragune auziko epai berria salatzen. «Izan ere, absolu-

zioa soilik onartzen dugu auzi politiko honetan», azaldu du Anoetako ezker abertzaleak. Ibarran ere elkarretaratzea egin zuten eta 50 pertsona inguru elkartu ziren.

## Jon Jaunarena ◊ Pilotaria

Binakako Txapelketa irabazi berri du leitzarrak, eta bihar ekingo dio banakakoari; garaipenak indarra eman dio, eta txapelketa on bat egiteko gogotsu dagoela azaldu du.

# «Oso zaila da lehen mailara igotzea, baina nik gogor jarraituko dut lanean»

**Iñigo Terradillos** Leitza

Bigarren mailako Banakako Txapelketako final-laurdeneko partida jokatu du bihar, Bilbon, Ibai Zabalen aurka, 17:15etik aurrera. Binakako Txapelketarekin gertatu bezala, txapela jantzi nahiko luke Jon Jaunarenak (Leitza, 1992), baina ez dela batere erraza izango dio, «aurkari guztiak maila handikoak baitira».

**Pasa den igandean zenuen binakako lehen partida, baina aurkariak, Larrinagak, ezin izan zuen jokatu, eta ondorioz, final-laurdenetara pasa zara. Ibai Zabalen aurka jokatu duzu bihar. Nolako partida izango da?**

Ibai Zabala binakako partidetan baino ez dut ikusi jokatzeko. Oso gogorra eta ziurra da, beraz, defentsa lan handia egingo du. Uste dut partida zaila izango dela, lan handia eginaraziko didalako. Ea ongi jokatu eta irabazterik dudan.

**Zer moduz ikusten duzu zure burua txapelketa honetarako?**

Ongi. Entrenamenduak espero bezala egin ditut, inolako ustekaberik gabe. Agian banakakorako entrenamendu gutxi egin ditut. Binakakoa orain bi aste jokatu zen, eta tartean ere izan dut beste partidaren bat. Ondorioz, bi entrenamendu baino ez ditut izan biharko txapelketarako, eta deskantsatzeko ez dut aukera handirik izan.

**Dena den, binakakoa irabazi eta gero, animoz indarturik egongo zara. Txapelketa bat irabazteak ilusio berezia egiten du, eta aurrera egiteko indarra ematen dizu. Banakako txapelketa on bat egiteko gogotsu nago.**

**Txapelketako txapela jantzi edota**



ASPE

**finalera iristeko aukera duzula uste al duzu?**

Nire ustez partidaz partida joan behar da. Beraz, orain biharko partida dut buruan, eta irabaziz gero, ikusiko da nor den aurkaria. **Zure partidaz gain, beste hiru jokatu dira asteburuan. Nolako txapelketa ikusten duzu?**

Txapelketa motza izango da, baina pilotari guztiak oso onak dira nire ustez. Txapela irabazteko hiru partida baino ez dira jokatu behar, baina irabazteko hirurak oso ongi jokatu beharko dira, pilotariak onak eta gogorrak baitira.

**Lehen mailako final-zortzirenak dira asteburu honetan. Nork egingo du aurrera zure ustez?**

Barriola eta Irujoren arteko partida da onena, egungo bi pilotari hobenetarikoak ariko baitira nor baino nor. Ea partida ona ikusteko aukera dugun eta guztiok gozatzen dugun. Olaizola eta Aritz Lasaren artekoari dagokionez, Olaizola denbora luze egon da jokatu gabe, eta Aritzekin askotan aritu izan naiz ni entrenatzen. Nire ustez, partida ona eta parekatua izan daiteke, eta bietako edonork irabazi lezake. Retegi eta

Olaetxearen artekoan, berriz, Retegi da irabazteko faborittoa, baina Olaetxeak zail jarriko dio. Bengoetxeak, bestalde, hurrengo astean du partida Gonzalez eta Merinoren artekoan aurrera egiten duenaren aurka. Bata zein bestea aurkari gogorrak dira.

**Urte eta erdi profesionaletan, eta dagoeneko Binakako Txapelketa irabazi duzu.**

Txapelketa horretan egin ditut debutatu nuenetik partidarik onenak. Ceciliok eta biok ongi jokatu dugu, eta horregatik irabazi dugu txapelketa. Oso gustura nago.

**Urte eta erdi honen inguruan zer balantze egiten duzu?**

Lehenengo urte osoa nahiko txarra egin nuen. Eskuetatik gaizki egon nintzen, partidarik ezin aurrera ateraz, sufritzen. Baina, azken hilabete hauetan nahiko ongi ari naiz. Eskuetatik osatu naiz eta partida onak egin ditut, batik bat, binakakoan. Horrek konfiantza eman dit eta gozatzen ari naizela esan dezaket.

**Lehen mailarako salto ematea posible ikusten al duzu?**

Oso zaila da. Goiko mailan pilotari oso onak daude, eta euren atzetik pilotari on asko datoz. Beraz, oso zaila izango da, baina ni saiatuko naiz ahal dudana egiten. Horretarako, gogor lan egingo dut, egunero entrenatuz, eta ikusiko da une hori iristen den.

**Herri arteko txapelketan bihar jokatu du Leitzak. Finalera iristeko aukera duela uste al duzu?**

Aurkarien mailaren arabera izango da hori. Nire anaia jokatzeko du Leitzarekin, beraz jarraituko dut txapelketa. Ea zerbat polita lortzeko gai diren!



## Hilberriak eta urteurrenak

### ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



### MANUEL ARRUTI

(Arkaitza tabernakoa)

BERTSOLARIA ETA LAGUNA  
Gugan hago



Xenpelar Bertso Eskola

Errenteria-Oreretan, 2012ko maiatzaren 11n



### MANU URKIOLA LASA

Beti konponbide bila arazoan jatorrik sailatzen denak ez bait dik inoliz izaten porrotik, gero arte lagun Manu mila esker denagatik edaten sagiko diagu hie idelen iturtik.

GHEO LAB

LAB

Besain, 2012ko maiatzaren 11



### MANU URKIOLA LASA

(Ariano elkarteko burkidea eta jurrakidea)

Batzuk diote ba omen dela izar berriz bat zeruan. Ez gaude hori baretatzeko bezain modu seguniar; nola egiten duzu egoteko beti gure inguruan lehen ondoko eserlekuan ta orain gure buruan.



Ariano elkarte

Besain, 2012ko maiatzaren 11



### MANU URKIOLA LASA

Zure umore eta kemenaz zoriontsu izan gara. Maite zaitugun guztiongandik har ezazu besakada.

Bere emaztearen loteriko kuadrilla

Besain, 2012ko maiatzaren 11





GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	20°
HOTZENA	14°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

- **Tolosa.** Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako Plataformak deituta elkarretaratzea gaur, 19:30ean, Trianguluan, pasa den asteburuan Durangon emakume bat erail zutela salatzeko.
- **Tolosa.** Andia kultur elkarteak Gorritira irteera antolatu du biharko. Azpirotzetik Gorritirako ibilaldiarekin hasiko dute egun guztiko egitaraua; 10:00etan aterako dira.
- **Anoeta.** Gaztetxearen XIII. urteurrena dela eta gaur, 22:30ean, eskualdeko bertsolari gazteen saioa, eta bihar egun guztiko festa: 12:00etan patata tortilla lehiaketa, bazkaria ondoren, 18:30ean poteokleta eta 23:00etan Luz de Putas eta Gabezin taldeen kontzertuak.
- **Alegia.** Euskal-Herria Palestina Elkartasun Eguna, bihar: 11:00etan olibondo landatzea, 12:00etan harrera ekitaldia plazan, bazkaria ondoren, Palesti-

- nako eta Euskal Herriko dantzak Sutarrerekin, 21:00etan zahagi ardoa eta 23:00etan Manillaren Iturriagaren kontzertua Gaztetxean eta Djak, ondoren.
- **Ibarrak.** Subegi eguna bihar: 12:00etan dultzaineroen kalejira Bartolak lagunduta, bazkaria bertsolariarekin ondoren, eta 20:30ean kontzertuak Emeterio Arresen: La Jodedera, Willis Drummond, Zea Mays eta Hesian. Ondoren, Djak.
- **Villabona.** Onddo gazte asanbladaren 15. urteurren ekitaldia, bihar: 11:00etatik aurrera, plazan, kuadrilen arteko olinpiadak, eta leku berean bertso bazkaria egingo dute ondoren.
- **Tolosa.** Olatu Talkaren barruan, bihar: Box.A elkarteak antolatuta 11:00etan kultur etxean, David Juarez arkitektoaren hitzaldia espazio publikoen berreskuratzearen inguruan, jarrera zabor edukiontzia molatu eta baratze mugikor bihurtuko dituzte; bestetik, Sukal

- Talka izenpean, 14:00etan Plaza Zaharrean eta Trianguluan 5 euroren truke menu berezia banatuko dute; eta bukatzeko, 15:30ean, Gainditzen elkarteak Julian Rodriguezek bakarriketa bat eskainiko die bazkaltzarrei.
- **Hernialde.** I. Nekazal, Abeltzain eta Artisautza Azoka igandean, 10:00etatik 14:00etara; artisau eta nekazal produktuak zuzen plazatik. Zizurkilaren atzealdean.
- **Tolosaldean.** Igandeko Herri Urratsera joateko autobusak antolatu dituzte eskualdean. Tolosan Galtzaundik antolatu du eta izena 943 65 50 04 zenbakira deituta eman daiteke. Autobusa 08:30ean irtengo da zuzen plazatik. Zizurkilaren Egarriin, Atxulondon, Iriarte jate-txean eta udal bulegoetan eman daiteke izena. Ikaztegi-tako, Alegiako eta Amezketako herritarrek Amezketako udal-txean eman behar dute izena eta gaur da azken eguna.
- **Tolosa.** Larramendiko lurpe-

- ratzearen inguruko batzar irekia astelehenean, 19:00etan, Topic zentroan.
- **Tolosa.** Maiatza Borrokaren barruan astelehenean, 19:30ean, *Gdeim Izki, Udaberri Arabiarraren detonatzailea* dokumentala, kultur etxean.
- **Anoeta.** Udalak udaleku irekiak antolatu ditu uztailearen 2tik 13ra. Izena udaletxean edo liburutegian eman behar da eta maiatzak 25 da azken eguna.

**JAIAK**

- **Alkiza.** San Isidro jaiak: gaur 17:00etan ginkana proba plazan, eta, ondoren, diskoteka 12 urteik beharokoz; bihar 09:00etan VII. Mendi Ibilaldi Mundiala, 17:00etan gurpil lasterketa eta jarraian gazteentzako giza proba; igandean 10:00etan meza, egurditik aurrera Erniopeko probak herria zeharkatuko du eta 18:00etan V. Frontenis Txapelketako finalak.

**DANTZA**

- **Tolosa.** Aukeran konpainiaren *Burnia* lana, gaur, 20:30ean, Leidorren.
- **Zizurkil.** Alurr taldearen *1512, Izanak dirau* lana bihar, 22:30ean, frontoian, doan.

**MUSIKA**

- **Tolosa.** Enablers, Fordamage eta Picore, gaur, 22:30ean, Nonberenean. Bihar, Inoren Ero Ni eta Layo Raser ordu berean.

**BERTSOLARITZA**

- **Tolosa.** Bertso saioa bihar, 22:00etan, Leidorren, Amets Arzallus, Julio Soto, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia, Andoni Egaña eta Aitor Sarriegi, bertsolariarekin.

**ANTZERKIA**

- **Aduna.** VI. Poltsikoko Antzerki Lehiaketako laugarren kanporaketa gaur, 22:30ean: Nalua Clown eta konpainia, La que tu me haces, Karmakros, Kittins Productions, Endika Salazar, Hernaniko antzerki taldea.
- **Tolosa.** Topic zentroan bihar, *Pinocho y medio*, 18:30ean.

**ZINEMA**

- **Tolosa.** Leidor aretoan asteburuan *Los juegos del hambre* haurrentzako filma eta *Almánya: Bienvenido a Alemania* ikusi ahal izango dira. Lehena pelikula bihar eta igandean 17:00etan ikusi ahal izango da, eta, bigarrena, igandean 19:30ean eta 22:30ean, eta astelehenean, 20:30ean.

**KIROLAK**

- **Tolosa.** Javier Urkolaren omenezko XI. Duatloa bihar, 16:00etatik aurrera.
- **Larraul.** Erniopeko mendi ibilaldia igandean. Ibilbide luzekoak 06:00etan aterako dira plazatik, eta motzekoak, 08:00etan.

**Farmaziak**

**GAUR**

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

**BIHAR**

- **Tolosa.** Santamaria, I.

Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

**ETZI**

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalzarreta, 1. 943 67 38 49.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

**ETZIDAMU**

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



**tolosaldea.hitza.info** webgunean, XIV Orduak probaren atalean, ibilbidearekin zerikusia duten albisteak dituzu eskuragarri: elkarrizketak, probaren xehetasunak, aholkuak...

- **Maiatzaren 23an gehigarri berezia** argitaratuko dugu HITZArekin batera; antolatzaileen hitzak, medikuen aholkuak, ibilbidearen nondik-norakoak, garai bateko argazkiak...

- **Maiatzaren 27an**, XIV orduen egunean, **HITZAK presentzia berezia izango du**; ... egunean zehar webgunean eta sare sozialetan ibilbidearen berri emango du momentuoro. ... San Migelen bertan presentzia izango du. ... gauean, proban parte hartu duten guztien argazkiak zintzilikatu ditu webgunean, nahi duenak eskuratu ditzan.



- **Maiatzaren 28an**, astelehenean, bezperako probaren inguruko **ale berezia** argitaratu eta banatuko du HITZAK eskualde guztian.